

## Lana eta familia bateratzeak gurasotasunean duen eragina: Arrisku eta babes faktoreak egungo familietan

Deusto Family Psych Deustuko Unibertsitateko ikerketa-talde bat da. Eusko Jaurlaritzako Familia eta Haurtzaro Zuzendaritza sailarekin lankidetzan, **bateragarritasunari eta familia-harremanei buruzko ikerketa** bat egiten ari gara, eta parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu.



### Zein da ikerketaren helburua?

Lana eta familia bateragarri egitea, gurasotasun positiboaren eta seme-alaben ongizatearen arteko lotura mekanismoak aztertzea, babes- eta arrisku-faktoreak identifikatuz eta familien aniztasuna kontuan hartuz.

### Zertan datza hezkuntza zentroaren parte-hartzea?

Proiektuan parte hartzeko:

- Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzako 4. mailara arte, gurasoek online galdetegi bat osatuko dute banaka, ikastetxeko plataformaren bidez helaraziko zaie.
- Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrera, gurasoek zein seme-alabek online galdetegi bat osatuko dute banaka, 20/30 minutuko iraupena izanik.

Helburu hau lortzeko, berebizikoa da zentroaren laguntza, ikerketa familien artean zabalduz eta haurrek galdera-sorta betetzeko beharrezkoak diren 20-30 minutuak eskainiz. Aurrez aurreko pasazio horretarako, gure taldeko ikertzaileak zentrorra gerturatuko dira aldeztu aurretik adostutako ordutegian. Jakina, informazio orriarekin batera, baimen egokiak eskatuko ditugu, adingabeko seme-alabek parte hartu ahal izan dezaten.

### Zer egingo da emaitzekin?

Emaitzak ikerketa-txostenetan, zientzia-aldizkarietan eta foro akademikoetan argitaratuko dira. Zentro eta parte-hartzaile guztientzat egongo dira eskuragarri. Azterlanaren funtsezko ideiekin dekalogo bat egingo dugu, eta azterketaren emaitzei buruzko online tailer bat antolatuko da.



### Eta, hezkuntza zentroak parte hartu nahi ez badu?

Ikerketan parte hartzea guztiz borondatezkoa da, baina horretara animatzen zaitugu. Ikastetxeko

familiak ematen diguten informazioa oso baliotsua baita.

### **Zeintzuk dira ikerketaren arriskuak eta onurak?**

Ikerketan parte-hartzeak ez du inolako arriskurik. Aldiz, guraso-gaitasunen, lan-bateragarritasunaren eta seme-alaben ongizate arloan zabalkunde-, prestakuntza- eta esku-hartze estrategiak diseinatzeko eta ezartzeko aukera emango digu.

### **Parte hartzeko pizgarriak badago?**

Hezkuntza zentro edo parte-hartzaileei ez zaie pizgarri ekonomikorik emango.

Proiektuan parte hartzeagatik, gurasoek Iñigo Ochoa de Alda doktoreak (psikoterapeuta

familiarra eta unibertsitateko irakaslea) emandako tailer baterako gonbidapena jasoko dute. Tailer honetan, familiei lana eta familia bateratzeko jarraibideak eskainiko zaizkie, haien denbora eskertzearren.

### **Ikerketa-taldearekin harremanetan jar gaitzke?**

Jakina! Gurekin harremanetan jar zaitezkete, ikerketari edo parte hartzeari buruzko edozein zalantza argitzeko, helbide elektroniko honetara: [conciliacionyfamilia@deusto.es](mailto:conciliacionyfamilia@deusto.es).

Informazio gehiago nahi izanez gero, bisita ezazu:

[www.deustofamilypsych.es](http://www.deustofamilypsych.es)



**Mila esker zuen laguntzagatik!**

[www.deustofamilypsych.es](http://www.deustofamilypsych.es)

 [DeustoFamilyPsych](https://www.facebook.com/DeustoFamilyPsych)  [@DeustoFamPsych](https://twitter.com/DeustoFamPsych)